


Euskal AEko merkataritzaren sektoreko salmentek % 3,0ko igoera izan dute 2022. urte osoan

2022ko laugarren hiruhilekoan, salmentek % 2,1eko igoera izan dute 2021eko hiruhileko berarekin alderatuta

Eustatek landutako datuen arabera, **2022. urte osoan Merkataritzaren** sektoreko salmentek % 3,0ko igoera izan dute prezio konstanteetan, 2021. urtearekin alderatuta. Urte osoko bilakaera positiboa izan da *handizkako merkataritzan* zein *txikizkako merkataritzan* (salmentek % 4,8ko eta % 2,9ko igoerak izan dituzte urtean, hurrenez hurren). *Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa* azpisektorean, berriz, 2022an metatutako salmentak 2021ekoak baino % 7,4 txikiagoak izan dira.

Merkataritzaren sektorean, salmentek hiru lurralde historikoetan egin dute gora 2022. urtean. Bizkaian, 2021. urtearekin alderatuta, igoera % 4,6ra iritsi da, Araban % 1,7ra, eta Gipuzkoan, azkenik, % 1,2ra.

Merkatariatzako indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

2022ko laugarren hiruhilekoko datuak soilik aztertuta ikus daitekeenez, *Merkataritzaren* sektoreko salmentek % 2,1eko igoera izan dute 2021eko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, egutegi-ondorioak zuzendu ondoren eta prezio konstanteetan. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta eta bidezko urtaro-ondorioak kenduta, salmentek % 1,2ko igoera izan dute 2022ko laugarren hiruhilekoan.

Merkataritzaren barruan, salmenten urtetik urterako bilakaera positiboa izan da *Handizkako merkataritzaren* azpisektorean zein *Txikizkako merkataritzaren* azpisektorean (salmentak aurreko urteko azken hiruhilekokoak baino % 4,6 eta % 2,8 handiagoak izan dira, hurrenez hurren). Aitzitik, *Ibilgailuen salmenta eta konponketa* azpisektorean, salmentak 2021eko laugarren hiruhilekokoak baino % 3,8 txikiagoak izan dira, prezio konstanteetan eta egutegi-ondorioak zuzendu ondoren.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, bidezko urtaro-ondorioak kenduta, salmentek gora egin dute *Handizkako merkataritzaren* zein *Ibilgailu motordunen salmentan eta konponketan* (% 0,7ko eta % 0,5eko igoera hiruhilekotik hiruhilekora, hurrenez hurren). *Txikizkako merkataritzaren* azpisektorean, berriz, salmentek % 0,1eko beherakada izan dute aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

Euskal AEko zerbitzuen kointura-indizea. Merkataritza. Behin-behineko datuak. 2022/IV

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	A(t) / A(t-4)
INDIZE OROKORRA	2,1	1,2	3,0
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	-3,8	0,5	-7,4
Handizkako merkataritza	4,6	0,7	4,8
Txikizkako merkataritza	0,3	-0,1	2,9
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Alava	0,7	1,3	1,7
Bizkaia	4,3	1,8	4,6
Gipuzkoa	-0,6	0,1	1,2
EMPLEGUA	1,3	0,2	1,6

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2023ko Otsailaren 14a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen kointura-indizea

Lurralde historikoak kontuan hartuta, *Merkataritzaren* sektore osoan salmentek gora egin dute urtetik urtera Bizkaian eta Araban, prezio konstanteetan. Zehazki, % 4,3ko eta % 0,7ko igoerak izan dira, hurrenez hurren. Gipuzkoan, berriz, salmentek % 0,6ko beherakada izan dute.

2022ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, salmentek gora egin dute hiru lurraldeetan. Zehazki, Bizkaia % 1,8ko igoera izan du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Arabak % 1,3koa, eta Gipuzkoak, berriz, % 0,1koa.

Euskal AEko *Merkataritzaren* sektorean diharduten langileen indizeak % 1,3ko igoera izan du 2022ko laugarren hiruhilekoan, 2021eko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta. Urteko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, berriz, igoera % 0,2ra iritsi da.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei, aparteko zirkunstantzietan egindako ahaleginagatik. Haiei esker, laugarren hiruhilekoko indizea % **95,6ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62